


# ZER BERRI



**Aizarnazabalen**

**MARTXOA 2024**

[www.aizarnazabal.eus](http://www.aizarnazabal.eus)

## **GAIAK**

1. HONDAKINEN BILKETA SISTEMAN EGINGO DIREN ALDAKETEI BURUZKO AZALPEN BILERA
2. EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA
3. JAI BATZORDEA
4. BIZKARSORO FILMA
5. KORRIKA
6. "SUIZIDIOA, HITZ EGIN DAITEKE" GAZTEEI BIDERATUTAKO TAILERRA
7. BOLUMEN HANDIKO HONDAKINEN DOAKO BILKETA
8. MINTZAPRAKTIKA
9. KZ GUNEA
10. KUTXAZAIN BERRIA

## 1. HONDAKINEN BILKETA SISTEMAN EGINGO DIREN ALDAKETEI BURUZKO AZALPEN BILERA

Martxoaren 6an, arratsaldeko 18:00etan Lauburuko proiektzio gelan (beheko gelan), **hondakinen bilketa sisteman egingo diren aldaketei buruzko azalpen bilera** egingo da. Herritar orori eragiten dion gaia da, beraz, bertara gerturatzeko gonbidapena luzatzen dizuegu, denon intereserakoa baita.

## 2. EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Martxoaren 8an, ostirala, arratsaldeko 18:00etatik aurrera emakumezkoen binakako bi pilota partida jokatuko dira. Batetik, *Ibarrola-Vertiz / Oskoz-Sotil* arituko dira. Bestetik, *Ruiz de Infante-Galeano / Aldaregia- O.R.Larramendi*.

Amaieran, emakumea eta kirolaren inguruko bideoa eskainiko da eta ondoren, manifestazioa eta poteo musikatua egingo dira.

## 3. JAI BATZORDEA

Martxoaren 13an, arratsaldeko 18:00etan udaletxeko bilera aretoan izango da 2024ko jaien antolakuntzarako laugarren bilera.

## 4. "BIZKARSORO" FILMA

Martxoaren 15ean, "Bizkarsoro" filma eskainiko da Lauburuko beheko gelan. Arratsaldeko 18.00eta hasiko da eta amaieran filmaren inguruko solasaldia egingo da.

### **Oharra:**

- Doakoa da
- 12 urtetik gorakoentzat zuzendua.

## 5. KORRIKA

### **Korrika Txikia**

Martxoaren 19an, arratsaldeko 16:00etan izango da Lauburu eraikinaren aurretik hasi eta udaletxera arte.

### **Korrika Nagusia**

23. korrika nagusia datorren martxoaren 19tik 20rako gauean igaroko da eskualdetik. Aizarnazabalera goizaldeko 3:00etan iritsiko da eta aurten gainera herritik igaroko da.

### Aizarnazabalgo ibilbidea:

- Etxabe
- Industrialdea
- Zubialde  
(Errepide nagusitik herri erdigunerako bidea)
- Baltasar Etxabe → Gaiko kalea → Baltasar Etxabe
- Beheko zubia

**Oharra:** Martxoaren 24an Baionan amaituko da Korrika. Amaiera ekitaldira joateko autobusa jarriko da. Goizeko 9.00etan irtengo da autobusa herritik eta itzulera arratsaldeko 19.00etan izango da, Baionatik.

Txartelak 5€tan eros daitezke Uztarrin.

## 6. "SUIZIDIOA, HITZ EGIN DAITEKE" GAZTEEI BIDERATUTAKO TAILERRA

Martxoaren 20an, TREBA GAZTEAK programaren baitan, 16-30 urte arteko gazteei zuzendutako hitzaldia eskainiko da.

- Gaia: "Suizidioa, hitz egin daiteke"
- Lekua /Ordua: Lauburu eraikina / 18.00
- Trebatzailea: Badabidebat
- Izen ematea: Liburutegian, martxoaren 1etik 15era bitarte.

## 7. BOLUMEN HANDIKO HONDAKINEN DOAKO BILKETA

Etxez etxeko doako bilketa zerbitzua eskaintzen du Emaús Traperos Sozietate Kooperatiboak. Tresna elektriko edo elektronikoak (garbigailua, telebista...), altzariak, ohea, somierra... etxetik jasotzeko deitu 656 789 574 zenbakira.

## 8. MINTZAPRAKTIKA

Euskaraz hitz egiten duen, ikasten ari den edota ikasteko interesa duen norbanakoei zuzendutako egitasmoa da honakoa. Kafe bat hartu, ibiltzera joan... aisialdian euskaraz mintzapraktika egin nahi baduzu eman izena liburutegian. Animatu parte hartzera!

## 9. KZ GUNEA

Begiralearen bisita:

- Eguna /Ordua: 2024/03/21 11:15 - 13:00
- Hitzordua hartzeko: [tutor.aizarnazabal@kzgunea.net](mailto:tutor.aizarnazabal@kzgunea.net) edo, jarraian dagoen telefono zenbakira deitu dezakezue: 945 062 555.

## 10. KUTXAZAIN BERRIA

Udaletxe azpiko kutxazaina aldatu dute. MUGI txartela bertan kargatu daiteke.

“ZER BERRI” TELEGRAMEN ESKURATU NAHI DUZU?



ESKANEATU MUGIKORRAREKIN

QR HAU

